

**IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA**  
**BEHIN BETIKO ONARTZEA OLKOTZ, MURU ARTEDERRETA, BIURRUN, CAMPANAS**  
**ETA TEBASKO SANEAMENDURAKO DESJABETZEA. BIURRUN-OLKOTZ-TEBAS ZATIA**

Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrek, 2023ko martxoaren 27an egin zuen saioan, akordio hau hitzartu zuen:

“2022ko ekainaren 28an, Iruñerriko Zerbitzuak SAren Administrazio Kontseiluak “SM287063 Olkotz, Muru Artederreta, Biurrun, Campanas eta Tebaso saneamendua. Biurrun-Olkotz-Tebas zatia” proiektua onartu zuen. Administrazioari jakinarazteko aurrekontu zenbatetsia 2.939.360,51 euro da (%21eko BEZa barne).

Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrek, 2023ko urtarrilaren 30ean egin zuen saioan, Batzar Nagusiak eskuordetuta, “SM287063 Olkotz, Muru Artederreta, Biurrun, Campanas eta Tebaso saneamendua. Biurrun-Olkotz-Tebas zatia” obraren proiektua onartzeko akordioa hartu zuen, desjabetzeko espedientea hasi zuen eta hasiera batean onartu zuen proiektu horrek ukitzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda. Desjabetzearen onuraduna Iruñerriko Zerbitzuak SA da. Horrez gain, proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen onura publikoa eta okupatu beharra aitortu eta deklaratu zituen, onarpenari lotuta baitaude.

Akordio horretan, proiektua eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jarri zen hamabost eguneko eperako.

Onartze horren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, 28. zenbakikoan, 2023ko otsailaren 9an, Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkarietan, 2023ko otsailaren 14an, eta Iruñerriko Mankomunitateko eta Tebas-Muru Artederretako eta Biurrun-Olkotzeko udaletxeetako iragarki-oholetan. Eta horrez gain, jakinarazpenak bidali zitzaizkien ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendan ageri ziren pertsoneri, eta jakinarazpen-iragarkia eman zen argitara, ukitutako baten batentzat, Estatuko Aldizkari Ofizialean, 2023ko otsailaren 23an.

Jendaurreko epearen barnean, María Paz Zubiri Oláiz andreak alegazioak aurkeztu zituen.

Iruñerriko Zerbitzuak SAK, bere aldetik, 2023ko martxoaren 22ko data duen txostena egin du, aurkeztutako alegazioei erantzuteko.

Hasierako onespeneren egunetik oraindaino akordioak lortu dira ukitutako gehienekin, eta, horrenbestez, egokia da behin betiko zerrendan akordiorik lortu ez den titularrak sartzea.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 20. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, eta aintzat hartuta, Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legearen 47.4 eta 29. artikuluen, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 4.1.d) artikulua eta Iruñerriko Mankomunitatearen Estatutuen 4. artikulua arabera, erakunde honek desjabetze-ahalmena gauzatu ahal duela, egokia da desjabetzeko espedientea behin betiko onartzea.

Batzar Nagusiak 2021eko urriaren 21ean egin zuen saioan onartu zen Batzar Nagusiaren eskumenak Batzorde Iraunkorren alde eskuordetzea, nahitaez desjabetzeko espedienteak izapidetzeko.

**HITZARTU DA:**

1. María Paz Zubiri Oláiz andreak aurkeztutako alegazioak gaitzestea, Iruñerriko Zerbitzuak SAK egindako txostenean (honekin batera dago) jasotako arrazoiengatik.
2. Behin betiko onartzea Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietatearen, desjabetzearen onuradunaren, “SM287063 Olkotz, Muru Artederreta, Biurrun, Campanas eta Tebaso saneamendua. Biurrun-Olkotz-Tebas zatia” obrari dagokion proiektua, eta bai proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda ere. Horrek berekin dakar onura publikoa eta okupatu beharra deklaratzeko.

3. Nafarroako Gobernuari eskatzea egin beharreko obraren presazko deklarazioa egin dezala, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan eta hurrengoetan jasota dauden eraginetarako, beharrezkoa baita lanak ahalik eta azkarrena egitea, zerbitzuan dauden hobi septikoen isurketak ezabatzeko, Aratzuriko Hondakin Uren Araztegiara bideratuta, araztegi horretan tratatzeko. Hartara, Biurrun-Olkozetik Tebasera doan ibaiaren bideko uraren kalitatea hobetuko da.
4. Ezartzea Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietateak agindu beharko duela bere banku-kontuetan nahikoa diru egon behar dela eskuragai ukitutako ondasun eta eskubideen balio justua ordaintzeko eta "SM287063 Olkutz, Muru Artederreta, Biurrun, Campanas eta Tebaso saneamendua. Biurrun-Olkoz-Tebas zatia" obraren desjabetze-prozeduraren ondoriozko gainerako betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko, modu horretan bermatua izan dadin balio justu gisa finkatutako diru-kopuruak ordaintzea ukitutakoari.
5. Ahalmena ematea Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariari edo berak eskuordetzen duen pertsonari sina dezan okupatu aurreko akta eta desjabetzea egiteko beharrezkoak izan daitezkeen bestelako agiriak.
6. Akordio hau kaleratzea, ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta Iruñerriko Mankomunitateko eta Tebas-Muru Artederretako eta Biurrun-Olkozteko udaletxeetako iragarki-oholetan; eta Foru Komunitateko egunkari batean iragarki berberaren laburpen bat argitaratzea.
7. Akordio hau jakinaraztea María Paz Zubiri Oláiz andreari, Iruñerriko Zerbitzuak SAK alegazioei erantzuteko egindako txostenaren kopia helarazita.
8. Akordio hau jakinaraztea interesdunei, adierazita haren aurka errekurtsio hauetako bat aurkez dezaketela, aukeran: 1.- Berraztertze errekurtsioa, Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorraren aurrean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta hilabeteko epean. 2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta bi hilabeteko epean. Eta 3.- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, egintza hau jakinarazi den egunetik aurrera zenbatuta hilabeteko epean.".

Iruñean, 2023ko martxoaren 28an. Lehendakaria, David Campi3n Ventura.

**PROIEKTUA: "SM287063 Oikotz, Muru Artederreta, Biurrun, Campanas eta Tebaso saneamendua. Biurrun-Oikotz-Tebas zatia "**

**UKITUTAKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA ZEHATZA ETA INDIBIDUALIZATUA**

	TITULARRA		LURZATIEN DATUAK				UKIPENAK				
	IZEN-ABIZENAK	PARTE-HARTZE EHUNEKOA	POLIGONO ZK.	LURZATI ZK.	UDALERRIA	LURRAREN ERABILERA	AKUEDUKTU ZORTASUNA metro linealak	ZORTASUN EZARPENA M <sup>2</sup>	OKUPAZIOA ERREGISTROAK		BEHIN-BEHINEKO OKUPAZIOAK M <sup>2</sup>
									M <sup>2</sup>	ZK.	
12	ZUBIRI OLAIZ, MARIA PAZ	100	3	422	BIURRUN- OLKOTZ	ALORRA	60	360	10	2	500
13	MARCO URQUIJO, ANA MARIA eta MARCO URQUIJO, BEGOÑA	100	3	248	BIURRUN- OLKOTZ	ALORRA	175	1.050	20	4	4.375
17	LOPEZ NAVARCORENA, MARIA CARMEN eta BIURRUN LOPEZ, JOAQUIN FELIX	100	3	317	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA	297	1.782	20	4	7.415
37	ZUAZU MONREAL, MARIA JOSEFA ZUAZU MONREAL, FRANCISCO MANUEL	50 50	3	255	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA	170	1.020	15	3	4.250
39	URIZ AMATRIAIN, ADOLFO JESUS	100	3	253	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA	105	630	10	2	2.625
48	URIZ AMATRIAIN, ADOLFO JESUS	100	3	224	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA	105	630	5	1	1.710
49	TEBASKO EZEZAGUNAK		3	223	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA	50	300	5	1	1.606
52	ZUAZU MONREAL, MARIA JOSEFA ZUAZU MONREAL, FRANCISCO MANUEL	50 50	3	213	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA	30	180	5	1	750
59	LOPEZ NAVARCORENA, MARIA CARMEN eta BIURRUN LOPEZ, JOAQUIN FELIX	100	3	201	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA	108	648	10	2	2.700